



DIRU-SARRERAK:

Hasierako inbertsiorako: Hasierako inbertsioa 25000€koa izan beharko da. Haietatik 3000€ bazkideen ekarpena izango dira, eta gainontzekoa lortzeko mailegu bat eskatuko dugu. Hala ere, ondorengo dirulaguntzetakoren bat lortzen saiatuko gara, eta lortuz gero, ez dugu mailegua beharrezkoa izango

Diru laguntzak: Gazteen osasun mentala lantzeko aplikazio bat garatzeko, hainbat diru-laguntza eskura ditzakegu erakunde publiko eta pribatuen bidez. Hona hemen aukeren laburpena:

1. **Osasun Ministerioaren Diru-laguntzak:** Ongizate emozionala eta osasun mentala sustatzeko ekimenetarako diru-laguntzak eskaintzen ditu.
2. **Osasun Mentaleko Ekintza Plana 2022-2024:** 100 milioi euro bideratu dira gazteek eta nerabeek osasun mentalarekin lotutako proiektuentzako.
3. **Euskadiko Osasun Mentalaren Estrategia:** Eusko Jaurlaritzak osasun mentalaren prebentzio eta sustapenerako estrategia bat ezarri du.
4. **Euskal Enpresentzako Laguntzak - SPRI Taldea:** SPRI Taldeak 30.000 eurorainoko laguntzak eskaintzen ditu proiektu berritzaileak garatzeko.
5. **Gipuzkoako Gizarte Hezkuntza eta Psikosozialeko Esku-hartze Programak:** Gipuzkoako Foru Aldundiak nerabeentzako eta familien hezkuntza sustatzeko programak ditu.

Hilabetero 10000€ beharko ditugu. Horretarako 2000 bazkide inguru behar ditugu premium bertsioa erabiltzen. Badakigu, hasiera batean ezinezkoa dela diru kantitate hau lortzea, baina behintzat lehenengo 2 urteetan gure soldata ez dugu kobratuko diru hau lortzen joan ahal izateko.

Jardunean:

- Salmenta prezioa: bi modutan salduko dugu gure aplikazioa. Alde batetik banakako pertsonak erosteko aukera izango dute, eta dohainik eskuratu ahal izango dute.
- Premium kuota: Gure aplikazioaren premium atala lortu nahi dutenek, hilabetea 5€ ordaindu beharko dituzte.